

Gure Euskadiko Ordezkaritzako (Bilbo) lantaldean Gizarte-eraldaketarako Hezkuntzako teknikari gisa sartuko den pertsona baten bila gabiltza.

Eginkizunak

- Ekonomia ulertzeko modu berriak zabaltzeko eta sustatzeko jarduerak eta proiektuak diseinatzea, planifikatzea eta garatzea: formakuntzak eta ekitaldiak antolatzea eta bideratzea, artikulua eta materialak prestatzea, erakundeen arteko harremanak sortzea eta mantentzea.
- Erakundeak Bizkaian duen ordezkartza izatea; partaide den tokiko eta lurraldeko sareetan parte hartzea; aliantzak ezartzea eta finkatzea.
- Administrazio publikoak finantzatutako proiektuen formulazioa, jarraipena eta justifikazioa tekniko eta aurrekontuko egitea.
- Boluntarioen taldeak eta praktiketan dauden ikasleak kudeatzea eta dinamizatzea; gizarte mobilizatzeko proposamenak identifikatzea eta koordinatzea.
- Mugarik gabeko Ekonomilarien Euskadiko delegazioaren zeharkako gestio-eginkizunak kudeatzea: administrazioa, komunikazioa eta ordezkartza.

Zer bilatzen dugu

- **Gizarte-eraldaketarako Hezkuntzan** esperientzia eta / edo prestakuntza izatea.
- **Euskaraz** lan egiteko gaitasuna edukitzea.
- Finantzazio publikodun **proiektuen formulazioan, jarraipenean eta justifikazioan** esperientzia eta / edo prestakuntza izatea.
- Modu autonomoan eta taldean lan egiteko gaitasun handia, **inplikazio eta erantzukizun handiarekin**.
- **Sarean lan egiteko** gaitasuna izatea eta funtsezko eragileekin aliantzak sortzeko ekimenarekin.
- **Taldean lana dinamizatzeko** eta errazteko gaitasuna izatea, ikaskuntzak kudeatzeko eta partaidetza-metodologia berritzaileekin.
- **Diziplina anitzekoa, erabakigarria eta proaktiboa** izatea, Mugarik gabeko Ekonomilariak bezalako proiektu komun batean sartzeko gogoak dituen.
- **Office paketea eta elkarlanerako tresnak** menderatzea.

Baloratuko da

- Hezkuntzarekin, gizarte-zientziekin, ekonomiarekin edo antzekoekin zerikusia duten arloetako unibertsitate-titulua.
- **Ekonomia Sozial eta Solidarioan** esperientzia eta / edo formakuntza izatea.
- Esperientzia eta/edo prestakuntza **ikuspegi feministan**.
- Antolakuntza horizontaleko egitura duten elkarte txikietan lan-esperientzia eta / edo lotura izatea (aktibismoa/ boluntariotza).
- Pertsona migranteen kolektiboarekin lan-esperientzia izatea.
- Komunikaziorako tresnak erabiltzen jakitea, hala nola blogak, wordpress, web-orriak eta sare sozialak; bai eta diseinurako eta maketaziorako tresnak eta parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko tresna digitalak ere.
- Sistema ekonomiko neoliberalaren eta horrek gizartean eta ingurumenean dituen eraginen ezagutza sakona.
- Genero-berdintasunaren aldeko prozesuetan parte hartzea.

Lan-baldintzak

- Urtebeteko ordezkapen-kontratua, berritzeko aukerarekin.
- Egun-osoko lanaldia: 35 ordu astean, MgEen hitzarmenaren arabera.
- Lanpostuaren kokapena: Bilbao (telelan partziala)
- Hasiera data: Berehalakoa.
- MgEen barneko marko laboralarekin bat datorren ordainsaria (26.380€ eta 28.180€ gordin artean urtero)

Hautaketa-prozedura

Hara zer egin behar den lan-eskaintzara aurkezteko:

- Bete [inprimaki hau](#).
- Curriculumak bidali ecosfron.euskadi@ecosfron.org helbide elektronikora. Curriculumaz gain, **aurkezpen-gutun** bat ere bidali beharko da, eta bertan azalduko dira curriculumeko alderdi kualitatiboak, lanerako motibazioa eta konpetentzia pertsonalak. (Kontuan hartuko dira aurkezpen-gutunaren edukiak)
- Mezu elektronikoaren gaia: **Lan-eskaintza EsF Euskadi**
- Hautagaitzak jasotzeko epea: **2024ko irailaren 15a**
- Elkarriketen gutxi gorabeherako data: **2024ko irailaren 18a**

Prozesuaren amaieran zure hautagaitzaren egoeraren berri emango dizugu.

Mugarik Gabeko Ekonomilariak lan-ingurune inklusiboa sustatzeko konpromisoa hartzen dute. Interesa duten pertsona guztiak animatzen ditugu, haien jatorria, generoa, sexu-orientazioa, desgaitasuna edo adina edozein dela ere, postu honetarako postulatzera.